

*Andoaingo Udalak,
Martin Ugalde
idazle andoaindarrak
ipuingintzan egindako ibilbideak
gaur egun ere jarraipena
izan dezan,*

*Andoain, Aduna,
Asteasu, Amasa-Villabona,
Larraul, Urnieta eta Zizurkilgo
gaztetxoan arteko
XXIII. Ipuin
Lehiaketarako
deialdia egiten du.*



XXIII. Martin Ugalde Ipuin lehiaketa

Deialdia honako oinarri hauen arabera arautuko da:

1. Deialdi honen xedea gaztetxoaren artean idazteko zaletasuna bultzatzea da.

2. Partaideak Andoain, Aduna, Asteasu, Amasa-Villabona, Larraul, Urnieta eta Zizurkilgo gazteak izango dira.

3. Ipuin lehiaketara **10etik 17 urtera bitarteko edozein neska-mutilek aurkez dezake bere ipuina.**

Lanak egile bakarria izan behar du.

Partaide bakoitzak lan bat edo gehiago aurkez dezake.

Lanak originalak eta argitaratu gabek izan behar dute. Baldintza hau ez betetzeak, zigorra ekar lezake: saria bueltatzea eta hurrengo deialdietan lehiaketa honetara aurkeztu ezin izatea.

4. Lehiaketa **lau mailatan** banatuko da, eta mailaren urteak kalkulatzekoan jaiotze urtea hartuko da kontuan.

A.maila : 10/11 urtekoena (2009 eta 2008an jaiotakoak)

B.maila : 12/13 urtekoena (2007 eta 2006an jaiotakoak)

C.maila : 14/15 urtekoena (2005 eta 2004an jaiotakoak)

D.maila : 16/17 urtekoena (2003 eta 2002an jaiotakoak)

5. **Gaia libre**a izango da eta hizkuntza **euskara** izango da.

6. A. mailako lanek gutxienez 2000 eta gehienez 6000 karaktere izango dituzte eta B. C. eta D. mailako lanek, gutxienez 6000 eta gehienez 16000 karaktere izango dituzte. Kasu guztietan DIN A-4 neurrian aurkeztuko dira ordenagailuz idatzita. Lerroartekoa bikoitza izango da, justifikatua eta letraren arial tamaina 12koa.

7. Lan bakoitzaren **BOST** kopia entregatu beharko dira **urriaren 10ean** goizeko **10:00etatik 13:00etara** Bastero Kulturguneko harreran.

8. Lanekin batera, **gutun-azal itxi bat** aurkeztuko da. Gutun-azalaren barnealdean lanaren egilearen izen-deiturak, jaiotze data, helbidea, telefonoa eta adina jarriko dira. Baita ikasten duen ikastetxearen izena. Gutun-azalaren kanpoaldean, berriz, **lanaren izenburu berbera eta egilearen jaiotze urtea soil-soilik.**

9. Era berean, lanarekin batera hirugarren oinarria betetzen dela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena aurkeztuko da, hau da, ipuina argitaratu gabekoa dela eta beste lehiaketa edo sariketa batzuetan inolako saririk jaso ez duela egiaztatzen duen aitortpena. Zinpeko aitortpen hori gutun azalaren barruan sartuko da esandako datu personalekin batera.

10. Sariak honakoak izango dira maila bakoitzerako:

A. maila : 1. SARIA: 100 euro + ipuin liburua
2. SARIA : 70 euro + ipuin liburua

B. maila : 1. SARIA :110 euro + ipuin liburua
2. SARIA : 80 euro + ipuin liburua

C. maila : 1. SARIA :250 euro + ipuin liburua
2. SARIA :150 euro + ipuin liburua

D. maila : 1. SARIA :250 euro + ipuin liburua
2. SARIA :150 euro + ipuin liburua

11. Epaimahai aditu batek erabakiko du lan sarituak zeintzuk diren. Andoaingo Udalak bere ordezkaria izango du epaimahaian eta idazkaria ere izendatuko du.

12. Sariak eman gabe utz daitezke aurkeztutako lanek Epaimahaiaren iritziz behar adinako kalitatez ez badute.

13. Lan sarituak Udalaren esku geldituko dira, eta egoki iritziz gero argitaratu egingo ditu, baina ez da horregatik jabetza eskubiderik izango. Horretarako, saritutako lanak formatu digitalean entregatu beharko dira saria jasotzen den egunean, bai CDan, USB batean... edo bestela emailaz ere bidal daitezke **kultura1@andoain.eus** helbidera.

14. Parte-hartzaileek antolatzaileak salbuetsi egiten dituzte parte-hartzaileek egin lezaketan plagioagatik edo indarrean dagoen legediko beste edozein lege-urrazterengatik ondoriozta daitekeen edozein rantzukizunetatik.

15. Sarituak izan ez diren lanak azaroaren 15ean eta 16an jaso ahal izango dira. Jasotzen ez diren lanak puskatu eta bota egingo dira.

16. Sari banaketa azaroan egingo da, aldeztu aurretik adieraziko den egunean eta orduan. Sarituei telefonoz jakinaraziko zaie sari banaketa noiz eta non egingo den.

17. Baldintza hauetan zalantzarik balego, hautaketa egiten duen epaimahaiaren iritzia izango da nagusi, horren erabakia apelaezina izango delarik.

18. Lehiaketa honetan parte hartzeak, baldintza hauek goitik behera onartzen direla adierazten du.

EGILEAK AITORTZEN DU

ikasleak, NA zenbakia duenak, adierazi eta egiaztatzen du:

izenburua duen ipuina originala dela, argitaratu gabekoa eta beste lehiaketa edo sariketa batzuetan ez duela inolako saririk jaso.

Andoain,

